

IRABAZI-ITURRIAK

Sexinf-ek gazteak kontzientziaztea du xede nagusizat, baina negozio guztiak bezala, diru-sarrerak izatea behar-beharrezkoa dela argi dago. Gure irabazi-iturri nagusia publizitatea izango da. Badakigu hasieran jasoko dugun diru kantitatea nahiko baxua izango dela, baina webguneko bisitak hazten doazen heinean, diru-sarrerak ere handiagoak izango dira.



Honetaz gain, ikastoletara joango gara hitzaldiak ematera, bertako gazteen, hau da, 15-18 urte bitarteko gazteen zalantzak argitzeko eta guztiz kontzientziazteko. Beraz, hitzaldien truke ere diru kantitate bat lortuko dugu. Hitzaldi bakoitzak, bi pertsonak artean beteko denez, bakoitzak 75€ kobratuko ditu, denera 150€ hitzaldiko. Gainera hitzaldien bidez gazteek webgunea bisitatzea ere lortuko dugu.

Honetaz aparte, webgunean bi erabiltzaile mota egongo dira: erabiltzaile erregistratuak eta ez-erregistratuak. Erabiltzaile erregistratuak 0.75€ ordainduko dituzte urtean, nahi adina aldiz sartu ahal izango dira webgunera eta ez dute denbora mugarik izango. Erabiltzaile ez-erregistratuak berriz, ordu erdiz erabili ahal izango dute webgunea soilik. Nahi duten bezala kudeatuko dute ordu erdi hori, baina 30 minutu horiek agortzen direnean ezin izango dute webgunean berriro sartu. Zerbitzu hau berriz kontsumitu nahi badute, erregistratu egin beharko dira.

Gure irabazi iturri nagusia publizitatea izango da. Hitzaldiek ere izango dute pisua, baina ez iturri gisa, webgunea saltzeko publizitate moduan baizik. Gure xedea ahalik eta erabiltzaile berri gehien lortzea izango da, beraz, gero eta konferentzia gehiago orduan eta kontsumitzaile gehiago izango ditugu, SexInf geroz eta gehiago zabalduko da.

IRABAZI ITURRIAK:

-Hitzaldia

- Webgunean erregistratzeagatik
- Publizitatea